

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

APILAIZKO ERROTA BIRGAITZEA

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2021

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☒ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Apilaizko errota birgaitzeko lanen helburuak hauexek dira:

- argiteria publikoan erabiltzeko energia ekoiztea,
- herriko biztanleei zerealak ehotzeko aukera ematea, nork berea kontsumitu dezan,
- bisitariei erakargarritasun turistikoa eskaintzea, baita ikasgune bat eta landa-eremuko tradizioak erakusteko gunea ere.

5.- Inbertsio totala: 37.312,77 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 21.641,41 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

Apilaizko Administrazio Batzarra

- ☒ Publikoa
- ☐ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Proiektu hau gauzatu da, lehenik eta behin, duela mende bat baino gehiago zentral elektriko txiki bat eraiki zuten Apilaizko bizilagunei esker. Bizilagun horiek jakin izan zuten gaurdaino iritsi zaigun ondarea jagoten, berriz ere birgaitu eta erabiltzeko moduan. Bestalde, Arabako Foru

Aldundiko Ondarearen eta Ingurumenaren foru-sailen laguntzari eta Leader laguntza-programari esker ere burutu da egitasmoa.

Azken batean, eraikin historiko bat berreskuratzeko eta energia berriztagarrien aukeretan sinesten duten hainbat erakunde publiko eta pribaturen sentsibiltatea eta konpromisoa batu dira proiektu honetara.

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Arraia-Maeztu, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Egitasmoaren helburua Apilaizko errota zaharra abian jartzea da, ehotzeko tresneria birgaituta. Horren bidez, herriko argiteria publikoan baliatzeko energia sortu nahi da, inguruko biztanleei zerealak ehotzeko aukera eman nahi zaie, nork berea kontsumitu dezan, eta, bide batez, erakargarritasun turistikoa eskaini nahi zaie turistei, bai eta bisitarientzako landa-eremuko tradizioen eta erabileren ikasgunea eta erakusgunea ere.

Aipatutako kultura-, hezkuntza-, gizarte- eta ekoizpen-alderdiez gain, udalerriko okindegi batek ehotzeko makina erabiltzeko interesa dauka, ogia egiteko.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Apilaizko errota martxan jarrita, herritarrek ehotzeko tresneria erabiltzeko aukera izango dute, nork berea kontsumi dezan eta, batez ere, energia jasangarria sortzeko aukera emango du errota, karbono-aztarna murriztuta; izan ere, errota inguruko bi presetatik datorren ura erabiltzen du ehotzariak mugiarazteko, bai eta energia ekoizteko indar eragile gisa.

Errota birgaitzeaz batera, bi presa ere zaharberritu dira, eta horrek biodibertsitatea zaintzen lagundu du.